

Astekaria

Larrun

Gakoak

Bizi
Baratzea

TEKNOLOGIA BURUJABETZA

Txatbot hoberenaren bila

Azken urteetan, adimen artifizialaren (AA) garapenak hizkuntza gutxituen egoeran eragin nabarmena izan du. Teknologia erraldoiek garatutako eredu nagusiak, hala nola ChatGPT, hizkuntza nagusietan trebatzen dira, eta horrek euskararen moduko hizkuntzak bazterrean uzteko arriskua dakar. Hala ere, Euskal Herrian bada horri aurre egin nahi dion ekimen bat: HiTZ zentroak euskarazko txatbot sistema irekia garatzeko ekimena abiarazi du.

 Gorka Julio

Etzi.pm

Artikulu hau *CC BY-SA 4.0* lizentziari esker ekarri dugu.

2025eko otsailaren 11n - 07:00



Inprimatu



HiTZ zentroa azken urtean esperimentuak egiten ari da euskarazko adimen artifizialeko eredu ireki bat sortzeko. Helburua ez da soilik txatboterako eredu bat sortzea, baizik eta euskarari eta euskal kulturari buruzko ezagutza txertatzea. Hau ez da erronka erraza, izan ere, euskarazko datu kopurua askoz txikiagoa da hizkuntza hegemonikoenekin alderatuta. Hori dela eta, proiektuaren arrakasta bermatzeko, komunitatearen parte-hartzea ezinbestekoa da.

Hain zuzen ere, HiTZ zentroak eskura dituen teknologia eta modelo libre ezberdinak baliatuz garatutako lehen prototipoak ebaluatzeko fasean jarri ditu, eta horretarako plataforma bat prestatu dute: <https://ebaluatoia.hitz.eus/>.

Bertan, erabiltzaileek txatboten erantzunak ebaluatu ditzakete, zein den hoberena erabakitzen lagunduz. Prozesu honen bidez, euskarazko ereduaren kalitatea hobetzea eta egokiena zein den identifikatzea espero

dute.

Euskararen biziraupen digitala bermatzeko, halako ekimenetan fokua jartzea garrantzitsua da. Teknologia garatuko duten pertsonak, honen aldeko apustua egiten duten instituzioak bezala, euskal komunitatearen parte hartzea aktibatzea ezinbestekoa izango da, bai kasu honetan eta baita etorkizunean ere.

HiTZ zentroarena bezalako ekimenek erakusten du teknologia erraldoien menpe ez egoteko bide propioak badirela eta horietatik ibiltzea besterik ez dugula. Eredu irekiak garatzeak burujabetza teknologikoan pausoak ematea ahalbidetzen du, eta horrek euskararen etorkizun digital oparoago baterako aukera ireki.

Otsailaren 3tik 17ra bitartean, erabiltzaileek aukera izango dute ebaluazioan parte hartzeko, eta HiTZ zentroak espero du komunitateak ahalik eta ekarpen handiena egitea. Euskararen etorkizun digitala guztion esku dago, eta teknologia berrietan hizkuntzaren presentzia ziurtatzeko urratsak ematea ezinbestekoa da.

Parte-hartzaileek, gainera, martxoaren 4an egingo den zozketan sari berezi bat lortzeko aukera ere izango dute. Eman zure laguntza euskarazko adimen artifiziala hobetzeko!



IRAKURRIENAK

Matomo erabiliz

- #1 Bere etxearen aurkako erasoak salatzen du Aritz Otxandianok, eta berriztagarriekin duen jarrerarekin lotu du
ARGIA
- #2 Frantziako lehen ministroaren alabak ere salatzen du “bortizki jipoitu” zutela Betharramgo ikastetxean
Jenofa Berhokoirigoin
- #3 Haur Hezkuntzako irakasleen %94 emakumeak dira
Mikel Garcia Idiakez
- #4 Madrilgo mugimendu ekologistan infiltratutako beste polizia bat atzeman dute
Jon Torner Zabala
- #5 “Guretzako mugarik ez dago eta horrela estreinatu behar zen: mugarik gabe”
Gorka Peñagarikano Goikoetxea

The logo for Azoka, featuring the word "Azoka" in a stylized, handwritten-style font, followed by a circular graphic element that resembles a stylized "3" or a swirl.



Hizki Pizti. Ikas dezagun irakurtzen eta idazten
30,00€

Kanal honetatik interesatuko zaizu: Teknologia burujabetza



2025-03-19 | Sustatu

**EAJ, EH Bildu eta
PSE-EE**

hezkuntzan

software libreko

plataforma

bultzatzearen alde

EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEK
ekimen bat adostu dute Eusko
Legebiltzarrean Hezkuntza

Sailari eskatzeko Iradi software libreko hezkuntza plataforma hedatzen jarraitzeko. Zenbait ikastetxetan ezarri da Iradi orain arte. Baliabide partekatuak, komunikazio zerbitzuak (e-posta eta... [\[+\]](#))



2025-03-05 | Lander Arbelaiz
Mitxelena

“Herri Mugimendua saretu eta eraginkortzeko tresnak eskaini nahi ditu BAMEk”

Euskal Herriko bi muturretatik datoz Itziar (Bilbo, 1982) eta Ekaitz (Erriberri, 2002), sortzen ari den Burujabetzaren Aldeko Mugimenduaren berri ematera. Euskal Herrian diren burujabetza prozesu ugariak arloz arlo bultzatu eta indartu nahi ditu BAMEk. Lan horretan hasteko,... [\[+\]](#)



2025-01-20 | Lander Arbelaiz
Mitxelena

‘Goazen lagunok’: sare sozial toxikoetatik fedibertsora trantsizio kolektiboa

Trumpek AEBetako
presidentetza hartuko duen
eguna baliatuta, *Goazen
lagunok* lelopean,
multinazionalen jabetzako sare
sozial "toxikoak" utzi eta
fedibertsora trantsizio
kolektiboa bultzatzeko kanpaina
egiten ari dira eragile ugari.
"Internet gizatiarrago
batean... [\[+\]](#)



2025-01-15 | [Sustatu](#)

Urtarrilak 20: Twitterretik (eta sare toxikoetatik) alde egiteko eguna

Nazioartean ekimen batek baino
gehiagok seinalatu du datorren
astelehena, 2025eko
urtarrilaren 20a, Twitterretik
alde egiteko egun gisa. Donald
Trumpek ofizialki AEBetako
presidentzia hartzeko eguna
izango da, eta haren eskutik X/
Twitterreko jabea, Elon Musk,
Etxe Zurira... [\[+\]](#)



2025-01-08 | [Diana Franco Eguren](#)

TEKNOLOGIA

2025ak dakarrena?

2025erako teknologia aurreikuspenen azterketa arina
egin dut. Urtero bezala, medioetan 2025ean teknologiak
ekarriko duenaz hitz egiterakoan diskurtsoa oso
antzekoa da. Teknologiaz idazten dugun askok badugu
etorriko denarekiko gehiago jakiteko larritasuna, berria
aurreratzeko... [\[+\]](#)

2025-01-04 | iametza

22. Txikipedia, umeentzako euskarazko entziklopedia txiki eta askea

MULTIMEDIA - HODEIA EZ DA EXISTITZEN



2024-12-16 | Asier Iturralde
Sarasola | iametza

Fedibertsoko edukiak euskarara itzultzeko zerbitzu librea gehitu dute Mastodon.eus-en

Mastodon.eusen euskara da hizkuntza nagusia, baina Fedibertsoa ehunka hizkuntza hitz egiten dituen komunitate global eta bizia da. Horregatik, itzulpenak egiteko **Libretranslate** tresna librea erabiltzen hasi dira. Horri esker, nazioarteko eragile eta norbanakoek argitaratukoak... [\[+\]](#)



2024-11-29 | Mikel Iturria | Eibar
.org

Komunikazio libreago baterantz

Azaroaren 21ean Errenteriako Torrekuan eta Badalaben egon nintzen "Komunikazio libreago baterantz trantsizioan" izeneko jardunaldian.



2024-11-27 | Diana Franco Eguren

TEKNOLOGIA

Hartzea ematea delako

Azken 15 urteetan dugun Internetak hartu duen bilakaera ikusita, duen eredu teknologiko eta negozio ereduari lotuta, gizatasunaren alde txarrenak areagotzeko tresna dela pentsatu dezakegu. Ideia horrekin konforme ez dauden eragileak sortu dira mundu osoan zehar. Honako... [\[+\]](#)

2024-11-23 | iametza

21. #Euskarabildua24 hausnarketa: Miren Berasategi eta Maider Likonarekin

MULTIMEDIA - HODEIA EZ DA EXISTITZEN



2024-11-21 | Asier Iturralde

Sarasola | iametza

X-tik irten nahi? Nor dago Mastodonen eta Blueskyren atzean? Nola finantzatzen da bakoitza?

Gaur, azaroak 21, Mastodon.eus komunitateak sei urte bete ditu. Urteurrena ospatzeko *Gure aukera, sare libreak* kanpaina abiarazi dute, atxikimenduak biltzeko. Izan ere, azken asteetan “eXodoa” ematen ari da: erabiltzaile asko X-tik ihes egiten ari dira, sare... [\[+\]](#)




2024-11-21 | Asier Iturralde
Sarasola

Mastodon.eus-en “Gure aukera, sare libreak”

kanpainarekin bat egin du ARGIAk

ARGIAko lantaldeak bat egin du Mastodon.eus-ek bere seigarren urtemugan abiatutako *Gure aukera, sare libreak* atxikimendu kanpainarekin.



2024-11-20 | Sustatu

Mastodonen oinarritutako Matx.eus sare soziala abiatu da, euskal kirolaz jarduteko

Matx, tokiko kirolaren sare soziala, atzo jarri zen martxan. **Urte hasieran app mugikor gisa** jaio ondoren, orain Mastodon azpiegituraren gainean berregina azaldu da. **Tokikom** tokiko hedabideen sareko kirol albisteen biltegi gisa ageri da webgunea orain nagusiki,... **[+]**



2024-10-28 | [iametza](#) | [Asier Iturralde Sarasola](#)

Jaurlaritzak baztertu egin du ikastetxeei software libreko sistema eragileak eskaintzea

EH Bildu talde parlamentarioak
[legez besteko proposamena](#)
[aurkeztu du](#) Eusko

Legebiltzarrean, EAEko
ikastetxeetako ordenagailuetan
software libreko sistema
eragileen (GNU/Linux) ezarpena
ere bermatzea eskatuz. Aurrera
atera den EAJ-ren eta PSE-EE-
ren osoko zuzenketan ez da
jasotzen... [\[+\]](#)



2024-10-23 | [Dabid Martinez](#) |
[Etzi.pm](#)

X-ren (lehen Twitter) akatsak errepikatu ala, behingoz, burujabetza teknologikorantz urratsak eman?

X bezalako espazioetan, gaur-
gaurkoz, eztabaida publikoa eta
borroka kulturala ematea
ezinezkoa dela onartu beharko
dugu noiz edo noiz. Zentzu
horretan, akats bat da ezkerreko

aldaketa bat gidatu nahi duten
proiektu politikoek X bezalako
plataformak uztea, soilik modu
erabat... [\[+\]](#)



CC BY-SA

Edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldtu eta argitara
ditzakezu, egiletza aitortu
eta baldintza beretan
eginez gero. Lizentzia hau
baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura
daramatenentzat soilik.



OLATUKOOP SAREKO KIDE



Ekoedizioaren Institutuko

bazkide

Astekariaren aztarna
ekologikoa

JARRAITU



LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
KULTURA ETIA HEZKUNTZA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



ARRASATEKO UDALA



metzagaiña

ADUR
software
productions

an^oza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ARGIA

KONTAKTUA | EGILEAK | PUBLIZITATEA | RSS JARIOAK |
PRIBATUTASUN POLITIKA | WHAT IS ARGIA?